# IRAKASLEEN ESKUORRIA

## Nafarroako irakaskuntza publikoan

**Irakasleok, irakasleontzat!**

Maisu-Maistrak eta Irakaskuntza Ertainak

2016 / 2017 IKASTURTEA



- Adinagatiko murrizketak
- Zerrenden kudeaketak
- Soldatak
- Lizentzia eta baimenak
- Lan osasuna
- Eskola jardunaldiak
- Habilitazio eta profilen akreditazioak
- Desagertzear dauden lanpostuak




Gida honetan publikatzen dugun informazioak ikasturte hasieran indarrean dauden lan baldintzak islatzen ditu. Hobekuntzak onartzen direnean (ratioak, kontratuak, ordutegia...) bertsio digitalean gaineratuko ditugu.

**www.steilas.eus**

## Haur eta lehen hezkuntzako irakasleen eskola orduak 2016-2017

(Zeuk zeure ordutegia murriztea erabakitzen baduzu)

| Jardunaldi mota Lehen hezkuntza | Tarteak hilak | Eskola ordu Guztiak | Irakaskuntza zuzena | Irakaste zenbaketa | Ordu osagarriak/ Esklusibak | Ordu guztiak |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Jardunaldi osoa | Urritik Maiatzera | 26 ordu<br>28 eskolaldi + atsedenaldia | 25 eskolaldi | 3 eskolaldi<br>+ 5 atsedenaldi<br>(2,5 o. atsedenaldia) | 5 ordu<br>- Klaustroak<br>- Tutoretza<br>- Lan instituzionala<br>- Ziklo Kooodinaketa<br>- Formakuntza | 31 ordu |
| Jardunaldi osoa | Irailean eta Ekainean | 20ordu<br>21 eskolaldi + atsedenaldia | 19 eskolaldi | 2 eskolaldi<br>+ 5 atsedenaldi<br>(2,5 o. atsedenaldia) | 5 ordu | 25 ordu |
| Jardunaldi Erdia | Urritik Maiatzera | 13 ordu<br>14 eskolaldi+atsedenaldia | 13 eskolaldi | 1 eskolaldi<br>+ 3 atsedenaldi<br>(1'30 o. atsedenaldia) | 3 ordu<br>(2 ordu 30 minutu) | 16 ordu<br>(15 ordu 30 minutu) |
| Jardunaldi Erdia | Irailean eta Ekainean | 10 o.<br>11 atsedenaldi + atsedenaldia | 10 eskolaldi | 1 eskolaldi<br>+ 3 atsedenaldi<br>(1'30 o. atsedenaldia) | 2 ordu<br>(2 ordu 30 minutu) | 12 ordu<br>(12 ordu 30 minutu) |
| Bi heren (Jardunaldi herena murriztua) | Urritik Maiatzera | 17 ordu 20 minutu<br>19 eskolaldi + atsedenaldia | 17 eskolaldi | 2 eskolaldi<br>+ 3 atsedenaldi<br>(1'30 o. atsedenaldia). | 3 ordu<br>(3 ordu 20 minutu) | 20 ordu<br>(20 ordu 40 minutu) |
| Bi heren (Jardunaldi herena murriztua) | Irailean eta Ekainean | 13 o. 20'<br>15eskolaldi + atsedenaldia | 13 eskolaldi<br>(13-14 eskolaldi) | 2 eskolaldi<br>+ 2 atsedenaldi<br>(1-2 eskolaldi)<br>+ (1o. atsedenaldia) | 3 ordu<br>(3 ordu 20 minutu) | 16 ordu<br>(16 ordu 40 minutu) |

**Jardunaldi osoa soilik dago araututa, besteak orientagarriak dira**

## Lehen Hezkuntza

### Urria - Maiatza

| Jardunaldi mota | Kontratu mota | Saio zuzenak | Zuzeneko beste saioak | Orduak | Orduak Jolasorduak | Jolasaldi Kopurua | Ordu lektiboak Kontratua | Ordu Osagarriak (Esklusibak) | Kontratuaren orduak guztira |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | %100,00 | 25,00 | + 3,00 | = 23,30 | 2,50 | 5,00 | 26 | 5,00 | 31,0 |
| | %96,00 | 24,00 | + 2,88 | = 22,40 | 2,40 | 4,80 | 25 | 4,80 | 29,8 |
| | %92,00 | 23,00 | + 2,76 | = 21,50 | 2,30 | 4,60 | 24 | 4,60 | 28,5 |
| | %88,00 | 22,00 | + 2,64 | = 20,50 | 2,20 | 4,40 | 23 | 4,40 | 27,3 |
| | %84,00 | 21,00 | + 2,52 | = 19,60 | 2,10 | 4,20 | 22 | 4,20 | 26,0 |
| | %80,00 | 20,00 | + 2,40 | = 18,70 | 2,00 | 4,00 | 21 | 4,00 | 24,8 |
| | %76,00 | 19,00 | + 2,28 | = 17,70 | 1,90 | 3,80 | 20 | 3,80 | 23,6 |
| | %72,00 | 18,00 | + 2,16 | = 16,80 | 1,80 | 3,60 | 19 | 3,60 | 22,3 |
| | %68,00 | 17,00 | + 2,04 | = 15,90 | 1,70 | 3,40 | 18 | 3,40 | 21,1 |
| 2 heren | %64,00 | 16,00 | + 1,92 | = 14,90 | 1,60 | 3,20 | 17 | 3,20 | 19,8 |
| | %60,00 | 15,00 | + 1,80 | = 14,00 | 1,50 | 3,00 | 16 | 3,00 | 18,6 |
| | %56,00 | 14,00 | + 1,68 | = 13,10 | 1,40 | 2,80 | 14 | 2,80 | 17,4 |
| Erdia | 1/2 | 13,00 | + 1,56 | = 12,10 | 1,30 | 2,50 | 13 | 2,60 | 15,5 |
| | %48,00 | 12,00 | + 1,44 | = 11,20 | 1,20 | 2,40 | 12 | 2,40 | 14,9 |
| | %44,00 | 11,00 | + 1,32 | = 10,30 | 1,10 | 2,20 | 11 | 2,20 | 13,6 |
| | %40,00 | 10,00 | + 1,20 | = 9,30 | 1,00 | 2,00 | 10 | 2,00 | 12,4 |
| | %36,00 | 9,00 | + 1,08 | = 8,40 | 0,90 | 1,80 | 9 | 1,80 | 11,2 |
| Heren bat | %32,00 | 8,00 | + 0,96 | = 7,50 | 0,80 | 1,60 | 8 | 1,60 | 9,9 |

### Iraila eta Ekaina

| Jardunaldi mota | Kontratu mota | Saio zuzenak | Zuzeneko beste saioak | Orduak | Orduak Jolasorduak | Jolasaldi Kopurua | Ordu lektiboak Kontratua | Ordu Osagarriak (Esklusibak) | Kontratuaren orduak guztira |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | %100,00 | 25,00 | + 2,00 | = 22,50 | 2,50 | 5,00 | 25 | 5,00 | 30,0 |
| | %96,00 | 24,00 | + 1,92 | = 21,60 | 2,40 | 4,80 | 24 | 4,80 | 28,8 |
| | %92,00 | 23,00 | + 1,84 | = 20,70 | 2,30 | 4,60 | 23 | 4,60 | 27,6 |
| | %88,00 | 22,00 | + 1,76 | = 19,80 | 2,20 | 4,40 | 22 | 4,40 | 26,4 |
| | %84,00 | 21,00 | + 1,68 | = 18,90 | 2,10 | 4,20 | 21 | 4,20 | 25,2 |
| | %80,00 | 20,00 | + 1,60 | = 18,00 | 2,00 | 4,00 | 20 | 4,00 | 24,0 |
| | %76,00 | 19,00 | + 1,52 | = 17,10 | 1,90 | 3,80 | 19 | 3,80 | 22,8 |
| | %72,00 | 18,00 | + 1,44 | = 16,20 | 1,80 | 3,60 | 18 | 3,60 | 21,6 |
| | %68,00 | 17,00 | + 1,36 | = 15,30 | 1,70 | 3,40 | 17 | 3,40 | 20,4 |
| 2 heren | %64,00 | 16,00 | + 1,28 | = 14,40 | 1,60 | 3,20 | 16 | 3,20 | 19,2 |
| | %60,00 | 15,00 | + 1,20 | = 13,50 | 1,50 | 3,00 | 15 | 3,00 | 18,0 |
| | %56,00 | 14,00 | + 1,12 | = 12,60 | 1,40 | 2,80 | 14 | 2,80 | 16,8 |
| Erdia | 1/2 | 13,00 | + 1,04 | = 11,70 | 1,30 | 2,50 | 13 | 2,60 | 15,0 |
| | %48,00 | 12,00 | + 0,96 | = 10,80 | 1,20 | 2,40 | 12 | 2,40 | 14,4 |
| | %44,00 | 11,00 | + 0,88 | = 9,90 | 1,10 | 2,20 | 11 | 2,20 | 13,2 |
| | %40,00 | 10,00 | + 0,80 | = 9,00 | 1,00 | 2,00 | 10 | 2,00 | 12,0 |
| | %36,00 | 9,00 | + 0,72 | = 8,10 | 0,90 | 1,80 | 9 | 1,80 | 10,8 |
| Heren bat | %32,00 | 8,00 | + 0,64 | = 7,20 | 0,80 | 1,60 | 8 | 1,60 | 9,6 |

# Eskola orduen banaketaren azalpena
# Haur eta lehen hezkuntzako orduak

**(NAO 8. zenbakia, 2003ko urtarrilaren 17koa. 229/2002 F.D. Azaroak 4)**

| | | |
|---|---|---|
| **Zuzeneko irakaslana** | • Ohiko talde/klase orduak.<br>• Banaketa orduak.<br>• Ikasleei laguntzeko orduak. | • PT/Logopedia B.<br>• Bikoizketa orduak. |
| **Irakaskuntza konputukoak** | • Zuzendaritza orduak.<br>• Zaintza orduak/ordezkapenak.<br>• Zikloa koordinatzeko orduak.<br>• Ibiltari gisa aritzearen konpetsazio orduak.<br>• Taldearen koordinazio didaktikoa eta tutoretza egiteko orduak.<br>• Jolas orduak.<br>• Kirol jardueren koordinatzaile orduak.<br>• Hhn 55 urtetik gorako irakasleen ikastorduen murrizketa.<br>• 58 urtetik gorako irakasleen irakasorduen murrizketa. | • Liburutegia koordinatzeko orduak.<br>• Teknologia berrien arduradunaren orduak.<br>• Jarduera artistiko-kulturalaren orduak.<br>• Berariazko jardueren arduradunaren orduak.<br>• HLUaren orduak.<br>• Liberazio sindikaleko orduak.<br>• Irakasleek jarduerak prestatzeko orduak (zuzeneko irakaslaneko edo konputuko ordu gehiago esleitu ezin bazaie).<br>• Kalitatea, bizikidetza edo teknologia arduraduna. |
| **Osagarriak Esklusibak** | • Klaustroa.<br>• Tutoretza.<br>• Lan instituzionala. | • Ziklo koordinazioa.<br>• Formakuntza. |

## Ordu murrizketak

**55 urte:** Irakaskuntza zuzeneko 2 ordu (Haur hezkuntzako irakasleak bakarrik!).
**58 urte:** 5 ordu= 6 saio. Modu desberdinak daude:

- Zuzeneko 3 saio + 3 lektiba.
- Zuzeneko 2 saio + 4 lektiba.
- 4 orduko murrizketa hartzen bada, falta den ordua formakuntzako 35 orduak bezala kontatzen da.

| Ibiltaritzako eskola orduengatiko konpentsazioa (0,30 euro km) | |
|---|---|
| Herri berean astean 30 km-taraino: | Eskola ordu bat eta 2 *osagarri. |
| Astean 60 km-taraino: | 2 eskola ordu eta ordu *osagarri bat. |
| Astean 90 km-taraino: | 3 eskola ordu. |
| Astean 120 km-taraino gehienez: | 4 eskola ordu. |
| Astean 150 km-taraino: | 5 eskola ordu. |
| Astean 180 km-taraino: | 6 eskola ordu. |
| Astean 210 km-taraino: | 7 eskola ordu. |
| Astean 240 km-taraino: | 8 eskola ordu |

* Ordu hauek ematea ikastetxeko zuzendaritzaren esku geldituko da.

## Irakaskuntza Ertainetako ordutegia

(Ekainaren 6ko 225/1998 FD, NAO 94.zbkia., 1998/7/8koa; azaroaren 4ko 229/2002 FD, NAO 8.zbkia. 2003/17/1koa, eta ekainaren 20ko 27/2012 FD, NAO 127 zbkia).

- **Asteko ardunaldirako 30 orduen banaketa:** 25 ordu asteko zenbaketakoak eta 5 hilabetetako zenbaketakoak.
- **Asteko zenbaketako 25 orduen banaketa:** Irakaskuntzarako 20 ordu (salbuespen bezala 22 izan daitezke) eta 5 osagarri (4 edo 3, 21 edo 22 dituztenen kasuan).

  Irakaskuntzarako 20 orduak irakaskuntza zuzeneko edo irakaskuntza zenbaketakoak izan daitezke.

  Irakaskuntza zenbaketakoak dira, besteak beste: departamentu burutza (CCPkoak barne eta kideen arabera 2, 3 edo 4 ordu izan daitezke), Koordinazio Tutoretza (2DBH eta CFGMn, 1 Batxilergoan, CFGS eta Sarbidean), Urrutiko HEOekin lankidetza, Teknologia berrien arduraduna, zuzendaritza lanak, Ziklo Formatiboen koordinazioa, FCT moduluen arduraduna, 58 urtetik gorakoen murrizketa, sindikal liberazioak, ibiltaritzak...

  Asteko zenbaketako 5 ordu osagarriak: zaintzak, departamentuko bilerak, tutoretzak...

- **Hilabeteko zenbaketako ordu osagarriak (5 ordu)**
  - Ikasleen aisialdi tartea, ez baldin bada kontatu asteko zenbaketan.
  - Klaustroetan parte hartzea.
  - Familiekin bilerak eta ikastetxean antolatu ohi diren ekintzak.
  - Ebaluazio eta irakasle taldeen bilerak.
  - Irakasle taldeen parte hartzea erakunde proiektuetan.
  - Eskolaz kanpoko eta jarduera osagarriak.
  - Formakuntza eta erakunde plangintzarako baliabideen kudeaketarako 2 ordu.
  - Formakuntza: urtean 35 ordu beharrezkoak (12 ordu ikastetxeko erakunde formakuntza).

Asteazken arratsaldetako bilerak desagertzen dira.

### Irakaskuntza Ertainetako irakasleen kontratazioa jardunaldi osoan edo partzialean

| Jardunaldia | Kontratu orduak | Kontratu orduak guztira | Irakaskuntza orduak | Asteko zenbaketako ordu osagarriak | Hilabeteko zenbaketako orduak guztira | Hilabeteko zenbaketako ordu osagarriak |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Jardunaldi osoa | 20 | 30 | 20 | 5 | 25 | 5 |
| | 18 | 27 | 18 | 4,5 | 22,5 | 4,5 |
| | 17 | 25,5 | 17 | 4 | 21 | 4 |
| | 16 | 24 | 16 | 4 | 20 | 4 |
| | 15 | 22,5 | 15 | 4 | 19 | 4 |
| 1/3 Murrizketa | 14 | 21 | 14 | 3,5 | 17,5 | 3,5 |
| | 13 | 19,5 | 13 | 3 | 16 | 3 |
| | 12 | 18 | 12 | 3 | 15 | 3 |
| | 11 | 16,5 | 11 | 3 | 14 | 3 |
| 1/2 Murrizketa | 10 | 15 | 10 | 2,5 | 12,5 | 2,5 |
| | 9 | 13,5 | 9 | 2 | 11 | 2 |
| | 8 | 12 | 8 | 2 | 10 | 2 |
| | 6 | 9 | 6 | 1,5 | 7,5 | 1,5 |

20 orduen gainetik egiten den ordu bakoitza, ordu osagarri batekin konpentsatuko da.

3.hiruhilabetekoan FCT ordutegia duen irakaslegoak, izaera orokorrarekin astean 22 irakaskuntza ordu izanen ditu.

## Ordutegi murrizketa Irakaskuntza Ertainetan

| Murriztea | Ardura | Oharrak |
|---|---|---|
| Irak. Zuzeneko 2 ordu eta 3 osagarri | DBH tutoretza | |
| Irak. Zuzeneko 2 ordu | CFGM tutoretza | |
| Irak. Zuzeneko ordu 1 eta 2 edo 3 osagarri (*) | Tutoretza<br>Batxilergoa<br>CFGS<br>Sarbide | (*) beti ere ikastetxeko beharrak beteak daudelarik: zaintzak etab... |
| Irak. Zuzeneko 2 ordu | Departamentu burutza<br>Irakasle 1-2 | |
| Irak. Zuzeneko 3 ordu | Departamentu burutza<br>3 Irakasle baino gehiago | |
| Irak. Zuzeneko 4 ordu | Departamentu burutza<br>10 Irakasle baino gehiago | |
| Irak. Zuzeneko 3 ordu<br>Irak. Zuzeneko 6 ordu<br>Irak. Zuzeneko 9 ordu | Ekintzen departamentu burutza<br>Kanpo lan ardurak (lanbide heziketa ikastetxeak) | 300 ikasle baino gehiagoko ikastetxea<br>500 Ikasle arteko ikastetxea<br>500 Ikasle baino gehiagoko ikastetxea |
| Irak. Zuzeneko 3 ordu | Ondoko departamentu burutza lanbide heziketa ikastetxeetan | |
| Irak. Zuzeneko 3 ordu | FCT moduluko arduraduna | |
| **Adinagatik** | | |
| Irak. Zuzeneko 5 ordu<br>Irak. Zuzeneko 4 ordu (*) | 58 urte baino gehiago | (*) 5. Ordua formakuntza orduetatik kenduko litzateke<br>Beste edozein murrizterekin bateraezina |
| Irak. Zuzeneko 6 ordu<br>Irak. Zuzeneko 4 ordu | **kalitate** arduraduna | BHIetan<br>DBHIetan |
| Irak. Zuzeneko 2 ordu eta 2 osagarri<br>Irak. Zuzeneko 3 ordu eta 3 osagarri<br>Irak. Zuzeneko 4 ordu eta 4 osagarri | **Teknologia berrien** arduraduna | <= 30 irakasle<br>31 eta 60 irakasle artean<br>60 baino gehiago |
| Asteko ordu 1 | **Urrutiko HEOrekin** lankidetza | Bereak ez diren bi talde hartzen diren bakoitzeko |
| Mailako irak. Zuzeneko ordu 1<br>3 Osagarri<br>Irak. Zuzeneko ordu 1 | Atal **elebidunak** | Gehienez 3 ordu materialen sorkuntza eta koordinaketarako |
| 2 Ordu osagarri | **PILE** programa | |
| | **PROA** programa | |
| Irak. Zuzeneko ordu 1<br>Irak. Zuzeneko 2 ordu | **Gainditu gabeko gaien** arduraduna | Gai eta mailako 25 ikasle baino gehiago |

## Ibiltaritzagatik (0.30 Euro km-ko)

| | |
|---|---|
| 30 Km arte | irakaskuntza zuzeneko ordu 1 + 2 *osagarri |
| 60 Km arte | irakaskuntza zuzeneko 2 ordu + *osagarri 1 |
| 90 Km arte | irakaskuntza zuzeneko 3 ordu |
| 120 Km arte | irakaskuntza zuzeneko 4 ordu |
| 150 Km arte | irakaskuntza zuzeneko 5 ordu |
| 180 Km arte | irakaskuntza zuzeneko 6 ordu |
| 210 Km arte | irakaskuntza zuzeneko 7 ordu |
| 240 Km arte | irakaskuntza zuzeneko 8 ordu |
| 240 Km baino gehiago | irakaskuntza zuzeneko 10 ordu |

* Ordu hauek ematea ikastetxeko zuzendaritzaren esku geldituko da.

## Lizentzia soldatadunak 11/2009 F. D. Otsailaren 9koa NAO 24 aldaketa 5/2013 F. D NAO 22

| Kontzeptua | Iraupena | Dokumentazioa | Eskaera | Oharrak / argibideak |
|---|---|---|---|---|
| Azken azterketara eta ikastetxe ofizialetako behin betiko gaitasun eta ebaluazio probetara aurkezteko. | Behar dena. | Matrikula, azterketa egutegia eta ziurtagiria. | Ikastetxeko zuzendaria. | 11/2009 F. D. NAO 24 8. art. |
| Ezkontza edo bikote egonkorra. | 15 egun natural. Ezkontzen diren egunetik edo bikote egonkorra osatzen denetik aurrera. | Egunaren agiria hasieran eta gero Familia liburua. | Giza Baliabideko Zerbitzu burua. | 11/2009 F. D. NAO 24 9. art. |
| Amatasuna. | 17 aste, amak lehenengo 6 asteak derrigorrez. 2 aste gehiago erditze anitza izateagatik edo haurrak ezgaitasunik badu. Lanaldia partzialez har daiteke. Art. 12.<br>Aitak ere eska dezake aitatasun eskubidea. Jaioberria ospitalean diraueino luzatuko da, betiere beste hamahiru astez, gehienez ere. Art.10.3. | Mediku agiria eta Familia liburua.<br>Gozatu ez dituzun oporretako egunak **eskatu behar dituzu** (27 lanegun) uztailean edo/ta abuztuan amatasun lizentzian egon bazara. Funtzionarioei 27 egun horietatik gozatu ez dituzten egunak dagozkie, eta uztailaren 1etik hasiko dira zenbatzen. Kontratatuei dagozkien egunak ordaintzen zaizkie. | Giza Baliabideko Zerbitzu burua. | 11/2009 F. D. NAO 24 10. art. |
| Adopzio edo harreragatik. | 17 aste. Ebazpena eman baino lau aste lehenagotik ere hasi ahalko da.<br>2 astez luzatuko da, ezgaitasunik badu edo haur bat baino gehiago, bigarrenetik aurrera. | Administrazio edo epaile erabakia den agiria. Adopzio ebazpena. | Giza Baliabideko Zerbitzu burua. | 11/2009 F. D. NAO 24 11. art. |
| Nazioarteko adopzio edo harrera kasuetan. | Haurraren jatorriko herrialdera joateko 2 hilabete gehiago eska daitezke. | Adopzioari buruzko ebazpena. | Giza Baliabideko Zerbitzu burua. | 11/2009 F. D. NAO 24 11.4 art Oinarrizko lansariak bakarrik jasoko dira. |
| Erditze, adopzio edo harreraren ondoriozko lizentzia soldataduna lanaldi partzialean hartzea. | Amak ezingo du lizentzia hau erabili erditu ondoko 6 asteetan. | Interesdunak eskatu behar du. | Giza Baliabideko Zerbitzu burua. | 11/2009 F. D. NAO 24 12. art. |
| Haurdunaldian edo berezko edoskitze aldian arriskuak izateagatik. | Haurdunaldian edo berezko edoskitze aldian. | Sendagilearen ziurtagiria. | Giza Baliabideko Zerbitzu burua. | 11/2009 F. D. NAO 24 13. art. |
| Gaixotasun larria (minbizia...) duten seme-alaben zaintzagatik. | Jardunaldia erdira murriztea, ordainsaria murriztu gabe. Salbuespena %75a gehienez, beharrak egiaztatuz gero. | Osasun zerbitzuek betetako aitorpena. Guraso biak lanean aritzea beharrezkoa.<br>Bi gurasoak funtzionarioak izanez gero, batek izanen du eskubide hau. | Giza Baliabideko Zerbitzu burua. | 5/2013 F. D. NAO 22 13 bis art. |

# Lizentzia soldata gabeak

| Kontzeptua | Iraupena | Dokumentazioa | Eskaera | Oharrak / argibideak |
|---|---|---|---|---|
| Norberaren aferetarako. | Bi urte naturaletan gehienez bost hilabete.<br>Eskatutako baimena agortu behar da.<br>Arrazoirik badago, luzapena eska daiteke.<br>Eguneko 140 euro edo kenduko dira. | Zergatiak eta dagozkion agiriak. | Giza Baliabideko Zerbitzu burua. | Eskaerak arrazoien gainean eginen dira. Ez da beharrezkoa izanen oporrak aurretik ahiturik izatea.<br>Zerbitzuaren beharretara baldintzatua, ordezkoa duenean salbu.<br>Ez du opor eskubiderik sortuko eta beraz kontzeptu hori ez da kontuan hartuko egin behar den soldata deskontuan.<br>11/2009 F. D. NAO 24 13. art.<br>1/2002 F. D. NAO 17 Art.12. 2 6 hilabete baino gehiagoko kontratua duenarentzat. |
| 6 hilabeteko baimena. | Urte bakoitzean sei hilabeteko iraupena izango du.<br>Hezkuntzan bi tandatan: otsailetik uztailera eta abuztutik urtarrilera.<br>Langile funtzionario zein kontratatuak hartu ahal du, beti ere bakantea edo plaza gordeta baldin badu.<br>Gutxienez urte osoko iraupena.<br>Kuota finkoak kenduta, kotizazioak %100 mantenduko dira. | Langile funtzionarioa: eskaera egiteko aukera, urte guztian zehar hezkuntza departamentuan.<br>Kontratupeko langilea: abuztuko lehen 15aldia edo lehenbailehen.<br>Zuzendaritzaren oneritzia ezinbestekoa da.<br>Aukerak: Ikasturte osoan zehar %50 kobratu edo 6 hilabetetan %100 kobratu eta baimendutako gainontzeko 6 hilabetetan ezer ez kobratu.<br>Kontratupeko langileek otsailetik uztailera hartu ahalko dute baimena. | Zuzendaritzaren baimena.<br>Instantzia Orokorra.<br>Giza baliabideen zerbitzu burua.<br>Baimena hartu baino 15 egun lehenago. | Baimena eskatu ostean ezin da eskaera atzera bota.<br>Maiatzaren 14ko 39/2014 F. D. |
| Hein batean ordaindutako baimena (langile funtzionario eta estatutarioa soilik). | Baimena eman eta 30 hilabete jarraian.<br>24 hilabetetan zehar jardunaldi osoan egingo da lan eta 6 hilabetez baimenaz gozatu ahal izango da.<br>Bi ikasturtetan zehar eta sei hilabeteko baimenean ordainsaria %84koa izango da. Aldakorrak direnak izan ezik. Gizarte segurantzaren kotizazioei dagozkien murrizketa proportzionalak ezarriko zaizkie. | Bi urte lanaldi osoan eta sei hilabeteko baimena. | Instantzia Orokorra.<br>Giza baliabideen zerbitzu burua.<br>Baimena hartu baino 15 egun lehenago. | Baimena eskatu ostean ezin da eskaera atzera bota.<br>Maiatzaren 14ko 39/2014 F. D. |

## Ordaindutako baimenak. 11/2009 F. D. Otsailaren 9koa nao 24

| Kontzeptua | Iraupena | Dokumentazioa | Eskaera | Oharrak / argibideak |
|---|---|---|---|---|
| Seme-alaba bat jaiotzen den bakoitzean. Gurasotasunagatik. | 15 egun natural. 2 egun naturalez luzatuko da, bigarrenetik aurrera edo gaitasunik gabekoa. Hamabost egun naturaleko baimen ordaindua emanen da, haur baten jaiotza, harrera edo adopzioagatik. Jaiotzen denetik edo ospitalean amari alta ematen zaionetik, administrazioak edo epaileak harrera erabakitzen duenetik edo epaileak adopzioa ebazten duenetik aurrera hartuko du aitak, bere hautura.<br>Seme-alabak garaia baino lehenago jaiotzen badira edo beste edozein arrazoirengatik ospitaleraturik egon behar badute jaiotzaren ondoan, aita has daiteke baimen hori hartzen seme-alabak alta ospitaletik jaso ondoren.<br>20 egun natural familia ugarian gertatzen denean, familia ugari bihurtzen denean edo familian ezgaitasun bat dagoenean. | Familia liburua edo erregistroko agiria. | Ikastetxeko Zuzendaria. | 11/2009 F. D. NAO 24 Art.16.<br>5/2013 F. D NAO 22 Art 16.1. eta 5.<br>Baimen hori amak har dezake, aitak hartu badu erditze, adopzio eta harreraren ondoriozko lizentzia ordaindua. |
| Hamabi hilabetetik beherako haurrei bularra emateagatik. | Egunean ordu bete lanaldiaren hasieran edo bukaeran edo 3 ordu laurdeneko bi aldi hartzea. Lanaldi osoetan metatzen ahalko da.<br>Formula: Ordu bat x eskola egunak/ 7,20 = gozatzeko lan egunak.<br>Haur bat baino gehiago erdituz gero, baimen hori hein berean handituko da.<br>Ez da beharrezkoa amatasun lizentziaren ondoren hartzea.<br>Aitak edo amak bereizketarik gabe hartu ahalko dute baimen hori, biek lan egiten badute. Gizonezko enplegatu baten bikotekideak ez badu bere kasa edo beste baten kontura lanik egiten, enplegatu horrek ezin izanen du baimen hori hartu, non amak ez daukan gaixotasun larriren bat, seme-alabaren zaintza normala galarazten duena. | Familia liburuaren fotokopia. | Giza Baliabideko Zerbitzu burua. | 5/2013 F. D NAO 22 Art 17.<br>Baimena modu honetan hartuta, enplegatuak zerbitzuak egiteari uzten badio baimenaren kontzesioa ekarri duen seme-alabak 12 hilabete bete baino lehen, beharrezko erregularizazioa eginen da. |
| Lagundutako ernalketa. | Beharrezkoa den denbora. | Lanaldian egin beharra frogatuz gero. | Ikastetxeko Zuzendaria. | 11/2009 F. D. NAO 24 Art.18. |
| Jaio aurreko azterketetarako eta erditzea prestatzeko tekniketarako. | Beharrezkoa den denbora. | Egina izandako ziurtagiria. | Ikastetxeko Zuzendaria. | 11/2009 F. D. NAO 24 Art.19. |
| Genero bortizkeriagatik. | Beharrezkoa den denbora. | Laguntzako edo osasunerako gizarte zerbitzuen txostena. | Ikastetxeko Zuzendaria. | 11/2009 F. D. NAO 24 Art.20. |
| Seme alaba elbarri fisiko edo psikikoen ikastetxeko koordinazio bileretara joateko, edo laguntzara eramateko. | Beharrezkoa den denbora. | | Ikastetxeko Zuzendaria. | 11/2009 F. D. NAO 24 Art.21. |
| Senar-emaztea edo bizikidea, aita-ama edo seme-alaba hil denean. | 4 egun (Nafarroan).<br>5 egun (Kanpoan). | Ez da beharrezkoa. | Ikastetxeko Zuzendaria. | 11/2009 F. D. NAO 24 Art.22.1. |
| Anaia-arreba, aita edo amaginarreba, suhia edo erraia hil denean. | 3 egun (Nafarroan).<br>4 egun (kanpoan). | | | 11/2009 F. D. NAO 24 Art.22.2. |
| Amona, aitona propioa edo ezkontidearena, koinata-koinatua edo biloba hil denean. | Egun bat (Nafarroan).<br>2 egun (Kanpoan). | | | 11/2009 F. D. NAO 24 Art.24.1. |
| Senar-emaztea edo bizikide, guraso edo seme-alaben bost egun baino gehiagoko ospitaleratzea, edota gaixotasun larria ospitaleratzerik gabe edo ospitaleratuta. | 4 egun (Nafarroan).<br>5 egun (Kanpoan). | Ospitaleratzeko aurreikusita dauden egunetarako sendagilearen ziurtagiria. | Ikastetxeko Zuzendaria. | 11/2009 F. D. NAO 24 Art.23.1. |

| Kontzeptua | Iraupena | Dokumentazioa | Eskaera | Oharrak / argibideak |
|---|---|---|---|---|
| Anaia-arreba, aita/amaginarreba, suhia eta erraien bost egun baino gehiagoko ospitaleratzea, edota gaixotasun larria ospitaleratzerik gabe edo ospitaleratuta. | 3 egun (Nafarroan).<br>4 egun (Kanpoan). | Ospitaleratzeko aurerikusita dauden egunetarako sendagilearen ziurtagiria. | Ikastetxeko Zuzendaria. | D.F.11/2009 NAO 24 Art.23.2. |
| Senar-emazte edo bizikidea, gurasoak edo seme-alabak, anaia-arreba, aita/amaginarreba, suhia eta erraien bost egun baino gutxiagoko ospitaleratzea, gaixotasun ez larria ospitaleratzerik gabe edo ospitaleratuta. | Egun 1 (Nafarroan).<br>2 egun (Kanpoan). | | | 11/2009 F. D. NAO 24 Art.23.3. |
| Bilobak, aitona-amonak norberarenak edo ezkontidearenak, suhia eta erraiak, bost egun baino gehiagoko ospitaleratzea, edota gaixotasun larria ospitaleratzerik gabe edo ospitaleratuta. | Egun 1 (Nafarroan).<br>2 egun (Kanpoan). | | | D.F.11/2009 NAO 24 Art.24.1. |
| Kirurgia handi anbulatorioa senar-emazte edo bikote egonkor, guraso edo seme-alabena. | 2 egun naturalak.<br>Eriak operazioaren egun berean etxera itzultzen direnean.<br>Halaber, kirurgiako prozeduraren ondorioz pazienteak ospitaleraturik egon behar duenean emanen da baimena, non ez zaion egokitzen iraupen handiagoko baimen bat. | Sendagilearen ziurtagiria. | Ikastetxeko zuzendaria. | 11/2009 F. D. NAO 24 Art.26.<br>5/2013 F. D NAO 22 Art 26.3. |
| Etxe aldaketa. | Egun bat. Nominetara helbide berria eman behar da. | Zinpeko adierazpena. | Ikastetxeko zuzendaria. | 11/2009 F. D. NAO 24 Art.27. |
| Ezinbesteko eginbehar bat, publikoa nahiz pertsonala. | Egiteko behar den denbora. | Ziurtagiria, lanaldiaren barnean denean. | Ikastetxeko zuzendaria. | 11/2009 F. D. NAO 24 Art.28. |
| Hauteskunde politikoetan hautagai. | Hauteskunde kanpainaren garaia. | | Giza Baliabide Zerbitzuko Zuzendaritza. | 11/2009 F. D. NAO 24 Art.29. |
| Norberaren aferak (eginkizun partikularrengatik). | 3 lanegun arte urtean zehar. 7 ordu eta 20 minutu guztira bai haur eta lehen hezkuntzan baita irakaskuntza ertainetan ere. | Ikastetxeko zuzendaritzari eskaera. | Zuzendaria. Zerbitzu beharren arabera. | 11/2009 F. D. NAO 24 Art.30.<br>5/2013 F. D NAO 22 Art 30.3. |

11/2009 F. D. NAO 24 Art. 3. Baimenak 10 egun **(naturalak)** aurretik eskatu behar dira.

5/2013 F. D NAO 22 Art. 3 bis. Erregelamendu honetako opor, lizentzia eta baimenei buruzko prozedura administratiboak ebatzi eta jakinarazteko epea, gehienez ere, 20 egunekoa izanen da. Epe hori ebazpen espresik jaso gabe iraganez gero, dagozkion eskabideak baietsitzat hartzen ahal dira isiltasun administratiboa dela medio.

5/2013 F. D NAO 22 Art. 6. 6. Aldi baterako ezintasuna dela-eta oporrak hartu ezin izan dituzten funtzionarioek lanera itzuli eta jarraian har ditzakete. Irakasleen eta ikastetxeetako laguntzaileen kasuan, lanera itzuli eta segituan hartu beharko dira oporrak nahitaez.

5/2013 F. D NAO 22 Art.7. Funtzionarioak erditze, adopzio edo harreraren, haurdunaldiko arriskuaren eta edoskitze naturalaren edota aitatasun baimen bat edo denbora osoko edoskitze baimen bat hartzen hasten direnean, edo aldi baterako ezintasuna gertatzen zaienean, horiek oporretan izanik, oporrak eten eginen dira, eta hartzeko falta diren egunak lizentzia edo baimena bukatu ondoren edo alta medikuarekin lanera itzuli eta gero hartuko dira, opor horiei dagokien urte naturala bukatuta egonda ere. Langile interinoei dagozkien egunak ordainduko zaizkie. (Kasu guztietan Giza Baliabideen Zerbitzuan eskatu behar da).

11/2009 F. D. NAO 24 Art.23.4. Lan egunak ospitaleratzea edo eritasuna gertatu zen eguna kontuan hartuta edo langilearentzat laneguna ez bada haren ondoko egun naturaletik hasita, gertakariak irauten duen denbora guztian erabili ahal izanen dira. Soldatadun baimeneko lanegunen kopurua finkatzeko kontuan hartuko dira gertakaria sortu zenetik dagozkion lanegunak bakarrik.

5/2013 F. D NAO 22 Art. 24. 2. Senitartekoen heriotzagatik denean, baimena heriotzaren egunean emanen da, edo, enplegaturentzat laneguna ez bada, hurrengo egun naturalean.

11/2009 F. D. NAO 24 Art.25. Pertsona berdinak ezingo du kausa berdinagatik baimena berriro eskatu, gutxienez hilabete bat iragan arte.

1. Egun **naturala:** egun guztiak jaiegunak eta igandeak barne.
2. Egun **baliodunak.** astegunak dira (larunbatak barne). Urtero NAOn agertzen dira.
3. **Lanegunak:** astegunak dira, astelehenetik ostiralera, biak barne.
4. Eskaera hamar egun natural lehenago aurkeztu beharko du.

1/2002 F.D.NAO 17 art.12.2: kontratatutako langileek lizentzia eta baimenak eskatzeko eskubidea dute.

11/2009 F. D. NAO 24 Art 5 kontratatutako langileek lizentzia eta baimenak eskatzeko eskubidea dute.

## Eszedentzia bereziak eta borondatezkoak

251/1993 Foru Dekretua NAO 107, abuztuaren 30ekoa, VI. Kapitulua. 11/1996 Foru Legea 85 NAO, uztailaren 2koa eta 10/2001 Foru Legea 67 NAO, maiatzaren 24koa aldatua, biak Nafarroako administrazio publikoen zerbitzuko langileentzako neurriei buruzkoa. 30/1984 Legea, abuztuaren 2koa, Funtzio Publikoko Erreformarako neurriena, 29.4 artikulua aldatzen da, 3/2007 L. O. Espainiako Aldizkari Ofiziala 71/2007ko. martxoaren 23a 71. aldizkarian argitaratua.19. Xedapen gehigarriaren 1. eta 2. atalak.

| Kontzeptua | Iraupena | Dokumentazioa | Eskaera | Oharrak / argibideak |
|---|---|---|---|---|
| Adopzioa edota hiru urte baino gutxiagoko haurren zaintza. | Jaiotze edota adopzio datatik hasita hiru urte baino gehiago ez. | Gutxienez 15 egun lehenago eskaturik. Beharrezkoak diren agiriak. | Giza Baliabide Zerbitzuko Zuzendaritza. | Lanpostuaren erreserba seme-alabak hiru urte bete arte. Eszedentziaren garaia antzinatasun eta lekualdatze lehiaketarako kontuan hartuko da. Pasiboen aldetik administrazioak kotizatzen du seme-alabak hiru urte bete arte. Espainiako Aldizkari Ofiziala 71/2007ko. 2. atala |
| Bigarren graduko ahaideen zaintza. | Urte bat baino gehiago ez, luzapenaren aukerarekin. | Aurretiko eskabidea . | Giza Baliabide Zerbitzuko Zuzendaritza. | Adina, istripu, gaixotasun edo gaitasunik gabekoa izateagatik bere buruaz ezin bada baliatu eta soldatapeko ekimenik ez badu Espainiako Aldizkari Ofiziala 71/2007ko. (1. atala). Eszedentziaren garaiak antzinatasun eta lekualdatze lehiaketarako kontuan hartuko da. Pasiboen aldetik administrazioak kotizatzen ditu hiru urte. |
| Borondatezko eszedentzia. (Norberaren interesagatik). | Mugagabea. Gutxienez urtebete. | 15 egun baino lehenago eskaturik. | Giza Baliabide Zerbitzuko Zuzendaritza. | 251/1993 Foru Dekretua NAO 107 VI. Kap. 26.art. Bi urteko zerbitzua eduki behar da.18 hilabete gordetzen da lanpostua. Berriro sartzea eskatzen bada eta bakanterik ez badago borondatezko eszedentzian jarraitzen da, norberaren interesarengatik, bakantea sortu arte. Zerbitzu beharren menpe dago. Ez du kontatzen ez antzinatasunerako ez eta pasiboetan ere. |
| (Beste administrazio publikoan lana egin). | | | | Ez da plaza gordetzen. |
| Zerbitzu bereziak (ordezkari publikoak). | Kargoa utzi eta ondorengo 30 egunetan itzuli behar du lanera. | | | 251/1993 Foru Dekretua NAO 107 VI. Kap. 24.art. |

## Lanaldi murriztuak

113/1997 F. D. NAO 56 179/2002 F. D. NAO 114an aldatuta27/2011 F.D.apirilaren 4koa NAO 78zbkia

| Kontzeptua | Iraupena | Dokumentazioa | Eskaera | Oharrak / argibideak |
|---|---|---|---|---|
| 12 urte baino gutxiagoko seme-alaba edo elbarri fisiko, psikiko edo sentsorialen zaintza. | Erdia, herena edo seirena. Ikastaldia bukatu arte, murrizketaren arrazoia desagertzen ez bada. Luzapena eska daiteke. | Familia liburua edo egoera ziurtatzeko agiri ofizialak. | Giza Baliabideko Zerbitzuko Zuzendaritza. | 113/1997 F. D. NAO 56 Aldaketak 179/2002 F. D. NAO 114. |
| Senar emazte edo bizikidearen edo lehen graduko ahaidearen elbarritasuna. | Luzapenik ez izatean, ezinezkoa da berriro eskatzea arrazoi berbera dela eta, gutxienez 6 hilabete pasa arte. | | | Oro har, lanaldiaren murrizketa egunero egin beharko da, langileak duen ordutegiaren hasiera-hasieran edo bukaeran, zerbitzuaren beharren arabera. (NAO56 5. 1 Art.). Deskontuak lanaldi murriztuari dagozkion lansarien gainean eginen dira. Familia laguntza izan ezik. (NAO56 6. 2 Art.). 86/2006 F. D. NAO 9. Artikulo bakarra. 27/2011 F.D. NAO 78zbkia. 5. artikulua, Jardunaldiaren seirena emanen da zerbitzuaren beharrek beste norbait kontratatzea eskatzen ez duten kasuetan. |
| Zaintza legala edo 12 eta 16 urte arteko haur baten zaintza. (*) | 12 urte baino gehiagokoa den kasuetan. | | | |
| 55 urte edo gehiagokoentzat. | 12 urte baino gutxiago dituen kasuetan ez da zain egon behar. | | | |
| Aldi bateko edo behin betiko ezgaitasuna emateko adinakoa ez den eritasuna. | (*) Zerbitzuen beharren arabera. | | | |
| Elkarrekin bizi diren bigarren graduko senitarteko ezinduak edo gaixo kronikoak. | | | | |
| Norberaren interesagatik. | Baimena emateak ez badu zerbitzuen funtzionamendua zailtzen.Lanaldia murrizteko kasu honetan eta izan litezkeen luzapenetan ez da behin ere onartuko garaia baino lehen bukatzea, salbu eta langileak amatasun-lizentzia hasten duenean edo jarduneko zerbitzua beste administrazio egoera batean ezartzen zaionean. | | | 118/2005 F. D. NAO 125ean. 113/1997 F. D. NAO 56ko bigarren artikuluan d) atala sartzen da. |
| Epez kanpo murrizketa bat eskatzen duen irakasleak esleituta duen lanpostuan jarraitu beharko du, harik eta Giza Baliabideen Zerbitzuak eskatutako lanaldi murrizketaren onarpena jakinarazi arte. | | | | 71/2004 F.D. NAO 43 V 5 puntua. |

# Soldata taula

## Nafarroa Murriztuak 2015 Urtea Ordainsariak

965,44 Oinarrizko soldata E maila Kontzeptu guztiak 14 ordainsari berdinetan kobratzen

| Gorputza | | Oinarrizko Soldata | Irakasle lanagatiko Osagarria | |
|---|---|---|---|---|
| Irakasleak | B maila = %1,65 E arabera | 1.519,20 | 578,36 | %38,07 soldata B maila |
| DBH-ko irakasleak | B maila = %1,65 E arabera | 1.519,20 | 661,16 | %43,52 soldata B maila |
| L.H.ko Teknikoak | B maila = %1,65 E arabera | 1.519,20 | 686,22 | %45,17 soldata B maila |
| B. Hezkuntza | A maila = %2 E arabera | 1.805,84 | 604,60 | %33,48 soldata A maila |
| Katedratikoak | A maila = %2 E arabera | 1.805,84 | 712,95 | %39,48 soldata A maila |

| Antzinatasun | 5 urte arte | 10 urte arte | 15 urte arte | 20 urte arte | 25 urte arte | 30 urte arte | 35 urte arte | 40 urte arte | 45 urte arte |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| % soldata E | 0 | 2 | 4 | 5,5 | 7 | 8 | 9 | 10 | 11 |
| Denak berdin | - | 19,31 | 38,62 | 53,10 | 67,58 | 77,24 | 86,89 | 96,54 | 106,20 |

| Gradua 1992tik | | 1 = 6 urte + 7 hil | 2 = 6 urte + 7hil | 3 = 13 urte + 2 hil | 4 = 19 urte + 9 hil | 5= 26 urte + 4 hil | 6 = 32 urte + 11 hil | 7 = 39 urte + 6 hi |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Irakasleak | %9 oinarrizko soldatatik | - | 136,73 | 273,46 | 410,18 | 546,91 | 683,64 | 820,37 |
| DBH-ko irakasleak | %9 oinarrizko soldatatik | - | 136,73 | 273,46 | 410,18 | 546,91 | 683,64 | 820,37 |
| L.H.ko Teknikoak | %9 oinarrizko soldatatik | - | 136,73 | 273,46 | 410,18 | 546,91 | 683,64 | 820,37 |
| B. Hezkuntza | %9 oinarrizko soldatatik | - | 162,53 | 325,05 | 487,58 | 650,10 | 812,63 | 975,15 |
| Katedratikoak | %9 oinarrizko soldatatik | - | 162,53 | 325,05 | 487,58 | 650,10 | 812,63 | 975,15 |

| Familiaren laguntza | | 1-2 seme alaba bitarte | 3-5 seme-alaba bitarte | 6-8 seme-alaba bitarte | >8 seme-alaba |
|---|---|---|---|---|---|
| | | %3 E oinarrizko soldatatik | %3 de E + %30 1etik | %3 de E + %35 1etik | %3 de E + %40 1etik |
| | Seme-alaba bakoitza | 28,96 | 37,65 | 39,10 | 40,54 |
| | Ezkonlaguna | %3,5 E oinarrizko soldatatik | 33,79 | | |

| Deskontuak | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | IRPF Taularen arabera | bakoitzaren egoera pertsonalaren arabera | | | | |
| | Eskubide Pasiboak | A maila | 106,89 | B maila | 84,12 | %3,86 Hartzeko erregulatzailea |
| | MUFACE | A maila | 46,8 | B maila | 36,83 | %1,69 Hartzeko erregulatzailea |
| | Besteak Gizarte Zerbitzuak | bere maila eta %en arabera | | | | |

### Oharrak:

Interinoek ez dute kobratzen ez Gradua, ezta familia laguntzarik ere.

Funtzionarioen kasuan Gradua kobratzeko Administrazioan 6 urte eta 7 hilabete lan eginak izan behar dira (kontratatu bezala eta praktikaldian eginak barne).

Antzinatasuna kobratzeko, bosturtekoa delakoa, kontratatuek ere badute jasotzeko eskubidea, 2010etik administrazioak informatizatua du bere menpeko langileen antzinatasuna, baina data honen aurretik lan egindako urteak, eskatu beharko dira.

# Habilitazioak eta Akreditazioak

## Titulazio bidezko habilitazioak

(Espezialitate berria eskuratzea – Funtzionarioak bakarrik)

| Espezialitatea | Betebeharrak edo titulazioak |
|---|---|
| Haur Hezkuntza | Haur Hezkuntzan Maisu-maistra lanetan aritzeko araututako Graduatu titulua / Haur Hezkuntzako espezialitatean Maisu-maistra titulua (1440/1991) / Oinarrizko Hezkuntza Orokorreko irakasle diplomatua Eskolaurre espezialitatean / Eskolaurre Hezkuntzan espezialitatea edo Haurreskola Pedagogiaren Filosofia eta Letrak (Hezkuntzaren zientzia atala) edo Filosofia eta Hezkuntza Zientzia (Hezkuntzaren Zientzia atala) Lizentziaturetan. |
| Lehen Hezkuntza | Lehen Hezkuntzan Maisu-maistra lanetan aritzeko araututako Graduatu titulua / Lehen Hezkuntzako espezialitatean Maisu-maistra titulua (1440/1991 E.D.) / Maisu-maistra edozein espezialitatetan (1440/1991 E.D.) / Oinarrizko Hezkuntza Orokorreko Irakasle Diplomatua edozein espezialitatetan / Lehen-Hezkuntzako Maisu-maistra (1950 eta 1967ko ikasketa planak). |
| Musika | Lehen Hezkuntzan Maisu-maistra lanetan aritzeko araututako Graduatu titulua, Musikari aipamen bat egiten diona / Musikaren esparruan Graduatu titulua /Hezkuntza Musikala espezialitatean Maisu-maistra titulua (1440/1991 E.D.) / Urriaren 3ko 1/1990 legearen Musika Goi titulua edo Irakaskuntzarako baliokidetutako titulazio oro / Musikologian edo Musikaren Historia eta Zientzian Lizentziatua. 1/1990 edo 2/2006 Lege Organikoen araberako Musika Titulu Profesionala. |
| Gorputz Heziketa | Lehen Hezkuntzako Maisu-maistra lanetan aritzeko araututako Graduatu titulua, Gorputz Heziketako aipamen bat egiten diona / Jarduera Fisikoa eta Kirolaren esparruan Graduatu Titulua / Gorputz Heziketa espezialitatean Maisu-maistra titulua (1440/1991 E.D.) /Gorputz Heziketan lizentziatua / Gorputz Heziketan diplomatua. |
| Atzerritar Hizkuntza (Frantzesa, Ingelesa, Alemana) | Lehen Hezkuntzan Maisu-maistra lanetan aritzeko araututako Graduatu titulua, Atzerritar Hizkuntzari aipamena egiten diona, eta hizkuntzen erreferentziazko Europear Marko amankomunaren B2 akreditazioa / Dagokion hizkuntzaren esparruan Graduatu titulua / Atzerritar Hizkuntza espezialitatean Maisu-maistra titulua (1440/1991 E.D.) / Oinarrizko Hezkuntza Orokorreko irakasle diplomatua Filologia espezialitatean / Dagokion Hizkuntza Eskola Ofizialeko Goi Maila edo Gaitasun Agiria / Dagokion hizkuntzan Filologia Lizentziatua / Dagokion hizkuntzako Hizkuntza Eskola Unibertsitarioetan (itzultzaile eta interpreteak) diplomatua. |
| Pedagogia Terapeutikoa | Lehen Hezkuntzan Maisu-maistra lanetan aritzeko araututako Graduatu titulua, Pedagogia Terapeutikoko aipamen bat egiten diona, edo baita beste edozein aipamen non bere curriculuma zuzenki lotuta dagoen behar berezidun ikasleen arretari / Heziketa Bereziko ezpezialitatean Maisu-maistra titulua (1440 / 1991 E.D.) / Oinarrizko Hezkuntza Orokorreko Irakasle Diplomatua Heziketa Bereziko espezialitatean / Psikopedagogian lizentziatua / Filosofian eta Letretan lizentziatua, Pedagogia atalean, Heziketa Bereziko azpiatalean, edo 1983ko azaroaren 7ko 11. BOEren araberako baliokidetza. |
| Entzumena eta Hizkuntza | Lehen Hezkuntzan Maisu-maistra lanetan aritzeko araututako Graduatu titulua, Entzumena eta Hizkuntzari aipamen bat egiten diona / Logopeda lanetan aritzea arautzen duen Graduatu titulua / Entzumena eta Hizkuntza espezialitatean Maisu-maistra titulua ( 1440 / 1991 E.D.) / Logopedian diplomatua. |
| Euskara A ereduan | EGA edo baliokide diren euskara tituluak. |

**Oharra:** Urte guztian zehar irekiak egonen dira bi prozesuak!!!

## Profilen akreditazioa
### (Funtzionario zein interinoentzat)

Martxoaren 11ko 32/2013 Foru Agindua (NAO 59. zk., 2013ko martxoaren 6koa)

### Eskatu daitezken profilak hauek dira:

- Zeinu Hizkuntza 1 eta 3
- Akordeoia, klarinetea, zeharkako txirula, kitarra, pianoa, bibolina, biolontxeloa
- Musika lengoaia eta koroao
- B2 eta C1aren baliokidetasuna: ingelesa, frantsesa eta alemana
- Hezkuntza Berezia edo Pedagogia Terapeutikoa
- Logopedia
- Online formakuntza
- Osasun- Langile / Erizain
- Hortz Higienea / Hortz Protesia
- Izpiak

| Zerrenda mota | Betebeharrak | Puntuazioa/ Ordena | Iraunaldia | Oharrak |
|---|---|---|---|---|
| 1. Zerrenda orokorra (2016an oposizioa egon den espezialitateetan bakarrik, gainontzeko espezialitateetan zerrendak mantentzen dira). | • Nafarroan oposizioaren lehenengo zatira aurkeztu izana puntuazio positiboa lortuz.<br>• Espezialitatean eskatzen den titulazioa. (1. eranskina). (Betebehar hau ez da derrigorrezkoa izango zerrendan jadanik zeudenentzat edota oposaketa gainditu dutenentzako). | • Irakasle esperientzia (gehienez 10 puntu).<br>• Prestakuntza akademikoa (gehienez 5 puntu).<br>• Beste merituak (gehienez 2 puntu).<br>• Oposizioko nota (bi proben arteko batazbestekoa). | Hurrengo oposizioa izan arte | Zerrenda honetan egoteko zutabean dauden 3 koadroetatik gutxienez kuadro bateko baldintzak bete behar dituzu |
| | • Nafarroan oposiziora aurkeztu izana beste espezialitate eta hizkuntza batean.<br>• Oposizioaren ikasturtean zerrendan egotea. | | | |
| | • Lan egin izana espezialitate eta hizkuntza horretan oposizioak deitzen diren ikasturtean. | • Puntuaziorik gabe ordenatzen dira, jatorrizko zerrendan zeuden orden berdinean. | | |
| 2. Berariazko zerrenda (zerrenda irekiak beharra dagoen espezialitateetan). | Proba gainditzea exijitzen ez diren espezialitateak:<br>• Eskaera aurkeztu Hezkuntza Departamentuaren Erregistroan (eskaerak apirilean eta urrian ebatziko dira).<br>• Espezialitatean eskatzen den titulazioa (1. eranskina). | • Proban lortutako nota (bakarrik 5 edo gehiago lortu dutenek). | | Kontratu bat onartzen duten pertsonak zerrenda orokorrera pasako dira puntuaziorik gabe eta zerrendan sartutako data, ordu, minutu eta segunduaren arabera ordenatuta. |
| | Proba gainditzea exijitzen diren espezialitateak (Musika eta Arte Ezsenikoetako Katedradunen eta Irakasleen Kidegoa):<br>• Proba gainditzea (gutxienez 5 puntu 10etik).<br>• Espezialitatean eskatzen den titulazioa (1. eranskina). | • Eskatutako tituluaren batazbesteko nota. | | |
| 3. Enplegu zerbitzu publikoen bidez (NEZ) deialdi propio batengatik osatua. | • Nafarroako Enplegu Zerbitzuan izena emanda egotea.<br>• Espezialitatean eskatzen den titulazioa (1. eranskina). | • Nafarroako Enplegu Zerbitzuaren araberakoa. | Nafarroako Enplegu Zerbitzuak Kidego, espezialitate eta hizkuntza berean zerrenda berriak eratu arte (gehienez 3 urte). | Kontratu bat onartzen duten pertsonak zerrenda orokorrera pasako dira puntuaziorik gabe eta zerrendan sartutako data, ordu, minutu eta segunduaren arabera ordenatuta. |
| 4. Deialdi bereziak. | • Eskaintzen den plazan interesa izatekotan mezu elektronikoa bidali<br>• Espezialitatean eskatzen den titulazioa (1. eranskina) | • Mezu elektronikoa bidalitako unearen arabera (ez da zerrendarik eratzen, bakarrik kontratua esleitzen zaio pertsona bati). | ________ | Kontratua onartzen duen pertsona zerrenda orokorrera pasako da puntuaziorik gabe. |

• **Aldez aurretiko uko egiteak:** Urte horretan oposizioen deialdirik egin ez den zerrenda batean bazaude eta hurrengo ikasturtean lan egitea ez bazaizu interesatzen, maiatzaren lehen hamabost egunetan uko egin dezakezu. Zerrendan leku berean jarraituko duzu eta ez duzu inolaz ere justifikatu beharrik.

• **Uko egite justifikatuak:** Ondoko kasuetan jardunaldi erdi edo osoko kontratuei uko egin ahal zaie: Emandako arrazoiaren aldaketa ematen denean izangaiak hala komunikatu arte, zerrendetan "ez-prest" bezala egonen da:

1) Erditze, adopzio edo haur-hartzeagatik. (Lanpostua gordeko zaizu baimena bukatu arte. Orduan lanera itzuli nahi ez baduzu ez zaizu lanpostua gordeko baina uko egite justifikatutzat hartuko da eta zerrendan zure postua mantenduko duzu).
2) Aitatasun baimena.
3) Behin-behineko ezintasuna.

• **Zerrendan duzun postua mantenduko duzu lanpostu ibiltari** edo lanaldi erdia baino gutxiagoko kontratuei ezetz esanez gero.

• **Jardunaldi erdiko edo gehiagoko kontratu bati uko egiten badiozu** edo ez baduzu telefonoa hartzen (%80 baino gutxiagoko jardunaldia ekaineko eta uztaileko esleipenetan) zerrenda guztietan "ez prest" egoerara pasako zara, baina ez zara kaleratua izango. Uko egin diozun kontratua hasten den egunetik aurrera berriro "prest" egoerara pasatzea eskatu ahal izango duzu (eskaera idatziz aurkeztuz Hezkuntza Departamentuan) eta 10 eguneko epean zerrendan zure postua berreskuratuko duzu. Bigarren aldiz uko egiten baduzu, ikasturte osorako "ez prest" egoeran geratuko zara.

• **Abuztuaren 31n zerrendak berregituratuko dira** eta sortu ziren momentuan zeuden moduan utziko dira. Beraz, ikasturtean zerrendaren barruan zure posizioa aldatu bada, hurrengo ikasturtearen hasieran, zerrendak sortu ziren momentuan zeunden tokira bueltatuko zara.

• **Salbuespenak**

- **Ordezkapen kontratu bat bukatu ostean,** 20 egunen barruan berriz irakasle bera ordezkatzeko beharra balego, eta ordezkatu duen izangaia libre badago, berriz berari eskaini beharko zaio.
- **Jardunaldi murriztuko kontratu bat hartu ostean,** eta ikastetxe berean ordu batzuetarako beharra badago, izangai horri eskaini beharko zaio kontratua, oso egin arte.
- **Hornikuntza zaileko lanpostuak 3 ikasturtetarako eskainiko dira:** Erronkari, Otsagabia, Garralda, Luzaide eta Zugarramurdi. (Bigarren Hezkuntzan Betelu, Goizueta eta Arantza). 2016-2017 ikasturtetik aurrera D eredua izanen duten eremu ez euskalduneko ikastetxeetako Haur eta Lehen Hezkuntzako espezialitateetako euskarazko plazal hornikuntza zaileko lanpostutzat hartuko dira. Lanpostu horren beharra desagertu edo funtzionario den norbaitek lanpostu horietako bat hartuko balu, esleipenetan 3 urtetan zehar lehentasuna izanen du lanpostuan aukeratzerakoan. Epe hori pasata lanpostuak libre jarraitzen badu pertsona berari eskainiko zaio. Urtetik urtera uko egin edo berritu daitezke lanpostu hauek izangaien aldetik (maiatzaren lehenengo hamabostaldian).

## Desagertzear dauden plazak ezabatzea:

kendu edo ezabatu behar duten plaza batean, eraginpeko pertsonak erabili dezakeen eskubidea da, baina ez zaio inori behartzen. Lekualdatze lehiaketaren garaian ezabatzeko aukera ematen bada, eta ikastetxe horretako zenbaitek erabili nahi badute, ikastetxean antzinatasun handiena duenak izanen du beti lehentasuna. Norbaitek ezabatzea eskatzean, behin-behineko egoerara igarotzen da. Behean adieraziko ditugun eskubideren bat erabili ondoren, ez badiote behin betiko plaza ematen, berriro behin-behineko gisa geldituko da (behin betikoa balitz bezala puntuatuko zaio). Eskubiderik erabili ezean, nahitaezko destinoa ematen ahal diote.

**1. Ikastetxean lehentasunezko eskubidea:** bere ikastetxean espezialitate berean edo habilitatua dagoen beste batean plaza aukeratzeko lehentasuna izatean datza.

**2. Zonaldean edo herrian lehentasunezko eskubidea:** bere zonaldean edo herrian lehentasuna izatean datza. Kasu honetan, habilitatua dagoen espezialitate guztietan parte hartzea eta inguruko ikastetxe guztiak aukeratzea (lehentasunaren arabera ordenatuz), behartzen da.

Bi kasuetan lehentasunezko eskubidea erabiltzeaz gain, leku aldatze lehiaketa arruntean parte hartu liteke dokumentu berean bi aukeretaz baliatuz.

Plaza ezabatzea ez bada beharrezko epean eskatzen, eta Administrazioa bada plaza hau ezabatzen duena, ondorioak izan dituen pertsonaren eskubideak arautuko dira (hasiera batean orain izango lituzkenaren antzekoak lirateke, baina ezin dugu ziurtatu horrelako kasurik eman ez delako).

**Irakas-zama eza:** Ezabatzea eskatzen ez badu, ez da behartzen eraginpeko pertsona lekualdatze lehiaketan parte hartzera. Jendaurreko ekitaldian aukeratuko du plaza, desplazatu gisa, lan karga faltagatik –zerbitzu eginkizunetan–. (Osasuneko gorabeherengatik zerbitzu eginkizunetan daudenen ondotik aukeratuko du, beste guztien aurretik). Ondorengo kasuetan plaza honetan mantenduko da: Beharra bukatzen ez den bitartean, leku aldatze lehiaketan behin betiko plaza eman arte, berea zen plazak karga lektiboa berreskuratzean edo esleipenetara joatea erabakitzean.